

Gizon bakanak

Erri guztietan egoten dira gizon bakanak. Bakanak eta banakak. Erriari eskiñiak. Eta erriaren mesedean uste bagako serbitzuak egiten dakitezanak.

Ertilariak (artistak) batzuk, euren egokitasuna noz-nai agertzen dabenak.

Gizon onak besteak, jai, eske-egun, laguntza eta borondatezko ekintza guztietan euren alegiñak sartzen dituenak.

Kirol zaleak besteak, euren taldeak aurrera utara eziñez, ogibidea be erdi aztuta eta askotan etxe-kalte, ekiñaldi luze eta garratzetan sartuak.

Euskera zaleak. Geienak euskeraren alde ixilleko ordu berezi asko beteten, euren ogibidetik kanpora, jolas eta atsegin orduak lagata, geienetan lagunen eta ezagunen aitzaki eta zirigarri geratzeko.

Sarri entzuten dira, batez be erri txikitetan, osagillien utsunea beteten dakien gizon eta emakume askoren ize-nak, urtien urtez gaixo askoren ezaupideen jaube egia diranak, edo ta amak erdibitzean zeregin guztien arduradun geratzen diranak. Eta baserrietan, abere arduetan albaitearren eskutuan batzutan eta on-ikusiz bestetan, bat-bateko ez-bear askotan dana lagata auzo laguntzan lez agertu eta euren berezko jakiña eskintzen dabenak.

Suetan, arrisku biziz, kanpai edo turuta entzun orduko suaren gar ondoan agertzen diranak.

Gogoan euki baita odol emoleak.

Itxas ertzak be ba daukaz bere atsegiñen ondoan, bere itzaltasun eta estutasun eta negargarrikeriak. Itxas zabaletan batzutan, itxasoaren asarre eta indarririk neurtu barik, txalupen ondamentietan edo ta gizonen zoritxarretan euren buruak eskiñi izan dituenak. Eta

erreka eta ibai ertzetan bestetan, ume errukarriak euren olgetetan uretara jausi eta geiagorik pentsatu barik, soiñekoak soiñean, dsanga egiten dabenak eta ainbat umeen biziak zaindu al izan dituenak.

Itxasoari euren bizitzak iñoren mesedean eskiñitakoen artean, ezaguna eta gogoratu da Jose Mari Zubia, "Aita Mari", zumaiarra. Donosti'n dauka, bertako molla gaiñean, itxastarren izeñean eskiñitako arrizko irudi ta oroitza. Bardin Zumaia'n.

Gogoan dodaz bideetako laguntzaille asperbakoak.

Geienen izeñak erri guztietan gogoratzen dira, erri mesedegille lez.

Bein-beingo mesedeak, gauza andi lez geratu eta aizetzen dira.

Eguneroko gauzak, oitura biurtu eta askotan konturatu barik igaro.

Ondarroa'n, goiztar gareanok, egunero ikusten genduzan lagun bi, bata alderdi baten eta bestea bestean, goizeko zortzirak orduko, Iñaki deuna ize-neko kale erdi bana garbitzen, garbitasunaren maitasunez, askotan adiskide askoren barregarri. Baiña eurak, egunero, ia alkarren leian, zikiñak batu, samarrak pillotu, ubidetako burdin arteak zabal zainduten.

Urteak eroan ditue lan orretan, euren ogibideko zeregiñari tarte artuta, Martin Porres zoriontsua bezin apal, irribarretsu eta umoretsu, bein olgetan asi eta askenetan nai ta ezko lez egiten.

Aste bateko utsunea euki dogu baten. Gaixo eskutu batek jo ta Bilbo'ra eroan eben. Bai zortzi egun barru illotz ekarri be.

Azken agurra, eskoba kirtena eskuan eukala egin eustan, ia eguneroko agur lez, eguneko egunkariak zer ekarren adierazi eta eztabaidatzen. Betiko agurrean pentsatu barik.

Alaxe joan jaku ugazaba izanarren edozein langille lez zintzo, apal eta lagunarteko lez zar-saritu (jubilatatu) arte etxegintzan, eta geroago be, bere zeregintxoetan edozeiñeri laguntzeko gertu egoan Etxebarria tar Juan, adiskide eta lagun Martia'ren lenengotan kintu lagunak egiten doguz lagun arteko bazkari egunari be itxaron barik.

Igarri barik, bera be konturatu barik, gizartearen ongille ixil eta borondatetsu zan bere eguneroko serbitsu bakanean.

A. ZUBIKARAI.